

2019/00001159 DEKRETUA

DEKRETUA: Hernanin, bi mila eta hemeretzi uztailaren lauan.

2019ko Estatuko Aurrekontu Legerik onartu ez denez, 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 6/2018 legea, uztailaren 3koa ardatz hartuta 2019ko Lan Eskaintza Publikoaren lehen fasea egingo da.

Aztertu da Antolakuntza eta Pertsonal Saileko Arduradunak egindako txostena.

Aurreko gutzia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau

ERABAKI DUT:

1.- 2019. urteko Lan Eskaintza Publikoa onartzea, eranskinean jasotzen den moduan.

2.- Aipatu Lan Eskaintza Publikoa Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta laburpen bat Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian. Hau dena, Euskal funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legeak, 16/1997 legeak eman dion idazketan, 24. artikuluan xedatzen duenari jarraiki.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsio, dagokion Administrazio Auzietarako Auzitegian, bi hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz aldizkari ofizial batean argitaratzen denetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsioaren aurretik, berraztertze errekurtsioa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz aldizkari ofizial batean argitaratzen denetik hasita.

ERANSKINA

2019 LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTU HUTSAK

Izena	Taldea	H.E	Derrigortasun data	Hautatze sistema	Hutsik	Eskala	Azpieskala	Mota	Txanda
Ur eta argi ofiziala (129 zk.)	C2	1	2016-10-31	Lehiaketa - Oposaketa	1	Administrazio Berezia	Zerbitzu Berezia	Ofizioetako langilea	Irekia

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Itziar Larraz Mozo udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.

